

BIZI BARATZEA

Gure kultura iraultzen ari den liburua

Bloga: www.argia.eus/bizi-baratzea · [@bizibaratzea](https://twitter.com/bizibaratzea)



Jon Sarasua eta Jakoba Errekondo elkarrizketan:

Irauntza eta iraultza

Jakobaren baratzearen baztertxo batean jarri dut begia. Joxean Artzek egiten digu kuku kontrazaletik, eta Nemesio Etxanizek haren tolesduratik. Koldo Izagirre, Lauaxeta, Montoia, Juan Kruz Beloki, Borges edo Xabier Leteren aleak ere hortxe daude, ortuaren ertzeko barazki. Belar artean, Mixel Elizanburu Robert A. Millikanen ondoan, eta atzeraxeago Pello Mari Otaño.

Baratzea bizitzeko asmo horretan, esango nuke pista bat ematen digula idazle-aipuen bazter horrek. Sorkari biologikoei begiratzeko dugun moduak izan dezakeela zerikusirik sorkari kulturaleri begiratzeko dugun moduarekin. Balio-kolore bertsuekin kokatzen garela errealtatearen kiribil handi honetan, lurrari begira eta hizkuntzei begira, arlo guztietan jaso dugunaren zurrumbiloan, espazioan eta denboran gertukoenetik hasita, herentzian eman zaiguna eta biziarratzen gaituena ongarrizteko. Oharkabean esanez iraultza, liburuaren aurkezpenean aipatzen den hitz lodi hori, iraultza ere badela.

Iraultza eta iraultza, hoskidetasunak eta lehen kolpeko asoziazioak hala pentsarazten badute ere, ez dira geruza bereko hitzak. Apurño bat ibili naiz ni baratzean, eta, ohi den bezala, lurra iraulita edo astinduta jarri izan dugu. Duela urte batzuk bestelako proba egin genuen: permakultura-ildo batzuek diotenaren haritik, lurra irauli eta astindu gabe, bere hartan landatu genituen barazkiak. Hurrengo urtean ortuaren erdia irauli egin genuen, beste erdia irauli gabe utzi, eta barazki bertsuak landatu bietan. Izan genuen emaitza asma-kizun utziko dut irakurlearentzat, gaiak hondoan dituen susmo ideologikoen erantzuna bezala. Ez dakit nik ezer askorik, baina galderatxo batzuk badituz.

Ikasteko, norabide anitzeko jakintza eta talentu pedagogikoa biltzen dituen norbaitek laguntzen badizu, mauka ederra. Bietatik eurrez dauka Errekondok. Bere liburuan horixe egiten da asko: ikasi. Eta iraultzaren eta iraultzaren kontu honetaz zer diok hik, Jakoba?

Jon Sarasua

Jon, bertsolaria gaijartzaile!

Baratze kontuetan behintzat, iraultza iraultza dek. Hobe esanda: iraultza iraultza dek. Dek eta ez dek. Dena, den -dena bezala, baietzaren eta ezetzaren arteko hibrido soila da bizitzan, naturan. Esan gabe aipatu deken Masanobu Fukuokari galdetu behar...

Landareen aiekara hurbilduta, haiek ederki bereizten dituzte iraultza eta iraultza. Espezie bakoitzak egiten du hautua. Espezieari eusteko eta landare berriak sortzeko zein ugalketa era hautatzea da kakoa. Sexurik gabeko ugalketari heldu diotenek klonak sortzen dituzte, hau da, alabak amaren berdina berdina izango dira, sekula guztian. Gutxi irauteko arriskua du espezie horrek. Eta irauten duena irautenaren irauten irauten du, ez biziz. Ugaltzeko sexua, sexuen nahasketa hautatu duten espezieek, aldiz, etengabe hibrido berriak sortzen dituzte, amaren eta aitaren artekoak. Horixe da haziaren mirakulua, dagoen eta gauza naturalena. Etor-kizuneko oro lehengoan desberdina izango da, jeneralean hobe, egokiagoa. Iraultza: lehengotik berria, beste bat. Hobetutako ama izango da hazitik datorren alaba. Eta hobetze horrek biziko ditu ama eta alaba; bizi-bizi bizi.

Iraultzan, irauten duenak ez du etorkizunik. Lehentxeago edo geroxeago galdu araziko duen zerbait sortuko da.

Iraultzan, etorkizunera egokitzen dena bizitzara jartzen da. Bizi da eta biziko da. Eta biziko direnak sortuko ditu.

Arrazoi dek Jon, iraultzeak iraultza dik oinarri. Zer irauli ere behar baita. Iraultzak, ordea, iraultza hutsak baino zerbait gehiago badik: irautetik bizitzera dagoen kokxa ttiki horixe. Eta, ez al zaie herriei edo kulturei landareei bezalatsu gertatzen? Animalia kontuetan neure aldean jantzia haizeenez, heuk argitu beharko diguk... Ni, badakik, landareen alde: bizi. Heu, bazekiat, baita ere.

Jakoba Errekondo

Eskaerak: 943 371 545 · www.argia.eus/denda · denda@argia.eus **Zure saltokian salgai jartzeko, jarri harremanetan gurekin.**

Salneurria: 23 € · Harpideentzat: 19,50 €